

HEZKUNTZA IKUSKARITZA
INSPECCIÓN DE EDUCACIÓNKANPOKO EKIMENA BATZORDEA
COMISIÓN DE ACCIÓN EXTERIOR

MARTXOA 2018

AGURRA

BADAKIZU...

...ZER HELBURU
DUEN GURE LAN-
TALDEAK?...ZER ESAN
NAHI DUTEN SICI
HIZKIEK?...ZER JARDUE-
RA PROGRAMA-
TU DUGUN AUR-
TENGO IKASTUR-
TERAKO?...NOLA PARTE
HAR DEZAKEZUN
TALDE HONE-
TAN?

EDUKIA:

1- Agurra

2- Kanpo ekime-
nako helburu eta
jarduerak

3- Zer da SICI?

4- SICI elkarte-
ren jarduerak

5- Kontaktua

Lankide agurgarriok:

EOSLATP de ERASMUS+ proiektuan, koordinatzaile gisa, izan genuen parte-hartze arrakastatsuak utzitako lorratzari jarraituz, buletin informatibo honen bidez zuekin partekatu nahi ditugu laster burutuko ditugun jarduerak eta gure Ikuskaritzaren Hirurteko Plan Orokorrean jasota dauden zenbait jarduera, hala nola, **konpetentzia profesionalak areagotzeko, hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarra indartzea.**

Lehen zenbaki honetan, aurtengo 2017-2018 ikasturterako ezarri ditugun helburuak deskribatuko dizkizuegu eta helburu horiek lortzeko burutu nahi ditugun jarduerak zehaztuko dizkizuegu.

Jarduera horietako bi azpimarratu nahi genituzke, funtsezkoak iruditzen zaizkigulako; alde batetik, gure Ikuskaritzaren sarrera SICI (Standing International Conference of Inspectorates) elkartean, zeinak Europako Batasuneko hainbat herri eta eskualdeetako 38 hezkuntza Ikuskaritza biltzen dituen; bestetik, datorren ekainean, kanpo-ebaluazioaz eta ikastetxeen ebaluazioaz jarduteko antolatu dugun prestakuntza-ekitaldia. Bertara arlo horretan eskarmentu handia duten Europako hainbat ikuskaritzatako ordezkariak gonbidatuko ditugu.

Buletin honen eta laster abian izango den web-orriaren bidez, gure Hirurteko Planaren Ikuspegia atalean agertzen den alderdietako bat bete nahi dugu: (4) etengabeko eguneratzearekiko prestakuntza, informazioa eta konpromisoa duten eta taldean modu koordinatuan eta irizpide batasunez diharduten profesionalen osatua izatea, erakundean berrikuntza - eta partaidetza-proiektuak sustatuz.

Halaber, Hezkuntza ikuskaritzaren barne zein kanpo komunikazio-kanalak hobetu nahi ditugu (Hirurteko Planaren 7. Estrategia). Hori dela eta, aktiboki parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, gaiak aurkezten ditugun heinean zuen iritzia eta iradokizunak emanaz, buletin honen amaieran agertzen den iradokizun-postontzia erabiliz edota web-orrian aktibatuko den foroan parte hartuz.

Jaso ezazue nire agurrik beroena

Jose Angel Ayucar, Ikuskatzaile Orokorra.



2- KANPO EKIMENA: HELBURUAK ETA JARDUERAK



- ⇒ *SICI elkarteko bazkide egitea eta ekintzetan parte hartzea.*
- ⇒ *Gure Ikuskaritzan Europako jardunbide onak zabaltzea.*
- ⇒ *Gure lana Europan ezagutaraztea.*
- ⇒ *Europako beste ikuskaritza batzuk ezagutzea.*

1. HELBURUA

SICI (*Standing International Conference of National and Regional Inspectorates of Education*) elkarteko bazkide egitea eta antolatzen dituzten ekitaldi, mintegi, batzar, eta lan-taldeetan parte hartzea eta bertako emaitza eta erabakiak hezkuntza ikuskaritzan zabaltzea.

Jarduerak:

- Buletin informatiboaren eta web-orriaren bidez, bazkide diren herrialdetako ikuskaritzek burutzen dituzten jardueren berri ematea.
- 2018ko irailaren 17tik 19ra, ikuskaritzak ikastetxeen kalitatean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta eskola-emaitzetan duen eraginari buruz Glasgown burutuko den ekitaldian parte hartzea.
- 2018ko azaroaren 15ean eta 16an, kanpo-ebaluazioen ondorio zuzenen zein zeharkakoen hainbat ikuspegiari buruz Nišen (Serbia) burutuko den batzar orokorrean parte hartzea.
- SICI elkartearen aldizkariaren edukia hedatzea.

2. HELBURUA

Ikastetxeen kanpo-ebaluazioari eta autoebaluazio buruzko Europako jardunbide egokiak hedatzea. Jardunbideei buruz eta haiek gure testuingurura moldatzeko balizko moduari buruz gogoeta egitea. Beste testuinguru europar batzuetan gaiaren inguruan erabili ohi diren hainbat material eta dokumentu ezagutaraztea.

Jarduerak:

- Ikastetxeen ebaluazioari eta autoebaluazioari buruzko 2 eguneko prestakuntza-jarduera antolatzea Euskal Herriko Ikuskaritza osoarentzat. Txostengileak Europako hainbat hezkuntza-ikuskaritzatako adituak izango dira. Aurreikusitako data: 2018ko ekainaren 7a eta 8a.
- SICI elkarteak, 2017ko urrian, Maltaan, ikastetxeen kanpo ebaluazioa eta autoebaluazioari buruzko jardunaldietan aurkeztu zituen materialen edukia ezagutzera ematea, buletin informatiboa edo web-orriaren bidez.

3. HELBURUA

Abian ditugun ekintzak Europa mailan ezagutzera ematea, batez ere, eskola-zuzendaritzaren eta irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren inguruko ekintzak.

Jarduerak:

- 2018ko irailean, Boltzanon egingo den eta 4 egun iraungo duen Europa mailako biltzarrean parte hartzea, Erasmus+en EOSLATP proiektuaren emaitza intelektualak hedatzeko eta beste hezkuntza-sistema europar batzuetako jardunbide egokiak biltzeko helburu bikoitzaz. Parte-hartze horrek sinposio-formatua izango du, eta hezkuntza-sisteman, ikastetxeetan, zuzendaritza-taldeetan eta irakaslerian aditua den Petros Pashiardis jaunak koordinatuko du.

4. HELBURUA

Europako ikuskaritzetako errealitateak "in situ" eta ikuskaritzako lankideekin partekatzea.

Jarduerak:

- Balizko parte-hartzea "Job-shadowing" izeneko jarduera europarrean, ikastetxeen ebaluazioaren inguruko beste jarduera batzuk ezagutzeko, hainbat ikuskaritza bisitatuz.

3- ZER DA SICI?

SICI (Standing International Conference of Inspectorates: nazio eta eskualdeetako hezkuntza- ikuskaritzen nazioarteko elkarte iraunkorra) Europako nazio eta eskualdeetako hezkuntza-ikuskaritzen elkarte bat da. 1995ean sortu zen eta gaur egun 38 ikuskaritza dira kide. SICI elkartearen helburu nagusia hezkuntzaren hobekuntza sustatzea da, ikuskaritzaren lana hobetuz. Bere sorreraren oinarria honako goiburua hau da: “Better Inspection, better learning” (Zenbat eta ikuskaritza hobea, orduan eta ikaskuntza hobea). Hiru helburu proposatu dira ikuspegi hori egi bihurtzeko:

- Ikuskaritzak eta ikuskaritzetako kideen gaitasun profesionalak hobetzen laguntzea.
- Ikuskarieren arteko lankidetzak eta kooperazioa sustatu eta babestea.
- Ebaluazioari eta hezkuntza-kalitatearen hobekuntzari buruzko nazioarteko eztabaidetan aktiboki parte hartzea.

Hautatutako ordezkariak osatutako batzorde betearazle bat dago;ordezkari horien ardura da urtero antolatzen diren batzar orokorretako erabakiak habiaraztea.

SICI elkarteak irekita dago lan nagusitzat hezkuntzaren ebaluazioa duten ikuskaritza eta nazio-erakunde guztientzat. Urteko tasa bat dago (3.000€ inguru). Komunikazio-hizkuntza ingelesa da. Badute 2016-2020ko Plan estrategikoa ere.

Hona hemen elkarteak osatzen duten herrialdeak: Albania, Austria, Bavaria, Belgika- nederlanderak-hizkuntzako erkidea, Belgika- Frantses-hizkuntzako erkidea, Belgika -Aleman-hizkuntzako erkidegoa, Bulgaria, Zipre, Errepublika Txekiarra, Danimarka, Estonia, Ingalaterra, Finlandia, Frantzia, Hamburg, Hessen, Irlanda, Italia - Invalsi, Lituania, Beheko Saxonia, Luxenburgo, Malta, Montenegro, Ipar Irlanda, Ipar Rhine-Westphalia, Norvegia, Portugal, Rhineland Palatinate, Errumania, Saxonia, Eskoziak, Serbia, Eslovakiako Errepublika, Ego Tiroi, Suedia, Herbehereak, Turkia, Gales eta **aurtengo urtetik aurrera Euskal Herria**

*Standing
International
Conference of
National and
Regional
Inspectorates of
Education*



4- SICI ELKARTEAREN JARDUERAK

SICI elkarteak honako jarduerak baliatzen ditu bere helburuak lortzeko:

- Informazioaz, ezagutzaz eta ikuspegiak jabetu eta elkarrekin trukatzeko.
- Trebetasun eta metodologiaren garapena sustatzen du.
- Ikuskaritza bateraturako eta ebaluaziorako zein bestelako kooperazio-proiektuetan parte hartzen du.
- Ikuskaritzako lanaren bidez lorturiko ezagutzak ematen dizkiete arduradun politikoei.

Urtero Batzar Orokor bat antolatu ohi da. Horrez gain urtero 3 edo 4 lan-bilera egiten dira, eta hainbat ebaluazio-proiektu eta bestelako jarduera kooperatibo gauzatzen dira.

Web-orrian ikus daitezke bileretan aurkezturiko materialak. Hona hemen horietako batzuk:

- “Ikuskaritzak hezkuntza politiketan duen eragina” (<http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/The-impact-of-inspection-on-education-policies>)
- “Hezkuntza Ikuskaritzak eginiko eskola-emaitzen ebaluazioa” (<http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/ASSESSMENT-OF-EDUCATIONAL-RESULTS-BY-SCHOOL-INSPEC>)
- “Bi ikuskarik ikastetxe baten ebaluazioa egiten dutenean balioespen sendoa ematen dute?” (<http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Development-and-Research/Research/Do-two-inspectors-inspecting-the-same-school-make>)
- “Barne zein kanpoko ebaluazioaren profesionalak bihurtzea: guztira bere osagai guztien batuketa baina handiagoa da” (<http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/General-Assembly/General-Assembly-2016.-Bolzano.-Italy>)

Informazio gehiago: <http://www.sici-inspectorates.eu/Home>



5- KONTAKTUA



Iradokizun postontzia: huis-g004@euskadi.eus



LASTER WEB ORRIAN!